

Etxauribar Lanean



Etxauribar lanean elkarteak Etxauribarrekin lotura dugun pertsonok osatzen dugu. Krisi betean sortu zen (2013ko apirilean), ibarrean sekulako langabezi-tasa zegoenean. Gure lehen erronka ibarreko jendeak eskaintzen eta zabalitzen zituen zerbitzu eta produktuen zerrenda gauzatzea izan zen. Honen helburua gure baliabideak ezagutzea eta bertako jendeak ibarrean kontsumitzea zen.

Egitasmo txiki honen bidez, aldizkako bileretan parte hartzen hasi ginen, ibarreko herrietan zehar txandakatuz: Etxauri, Ziriza, Etxarri, Bidaurreta, Belaskoain, Arraiza, Zabalza eta Ubani. Lehendabiziko bileretan ideia asko atera ziren eta hauek gauzatu ahal izateko berriazko lan-taldeak sortzea erabaki zen; hala nola, basogintza eta abeltzaintza, inauteriak, kontsumo taldea, trukaketa, Etxauribar Lanean eguna, jaiak, baratzeak, eta abar. Lan guztiak bi ildo nagusitan laburbil genitzake; batetik, ekonomiaren eta baliabideen aprobetxamendu jasangarriaren gaia; eta bestetik, ibarreko biztanleen bizi-kalitatea, gizarte-eta kultura-harremanak hobetzeko lan-taldeak. Bestela esanda, IBARRARI BIZIA EMATEA.

Egungo gizarte-eredua aldatu nahi dugu, beste giza harreman mota batzuekin ibarra eraikiz; bertan, elkarren arteko adostasuna, guztien ongia eta ibarrean lagundu ahal izatearen asebetetzea lehenetsiko dira. Laburbilduz, bide sozial eta ekonomikoa sortzen laguntzea da kontua, eta hori gure ingurunearekin eta gure bizimoduarekin bat etortzea.

Baina, nola egin dezakegu?

Hurratsez hurrats, helburu handiegirik jarri gabe. Ez ditugu lor ez daitezkeen proiektuak planteatzen, baizik eta, gureak direnei etekina aterata, egingarriak diren gauza txikiak planteatzen ditugu. Gure hitz gakoak APALTASUNA eta BENEKOTASUNA dira. Horrela, 10 urte hauetan ondorengo egitasmoetan lan egin dugu:

Gure lanaren errepasso sakona egin nahi izan gabe, hauek dira landu ditugun edo lantzen ari garen proiektuetako batzuk:

- Herri-baratzeak: Etxarrin herri-lurrak aprobetxatu asmoz, autokontsumorako herri-baratzeak egin ziren. Ibarreko edozein bizilagunek erabil zitzakeen.
- Ibarreko auzolanak: Ibarreko pertsona guztiei deialdia luzatu eta gero, bidexkak garbitu, basoberritzeak mantendu, baratzeak prestatu ziren...
- Abeltzaintza estentsiboa: Abeltzaintza estentsiboa ingurumenarekiko jarduera ekonomiko jasangarrietakoa da, baina azken hamarkadetan nabarmen egin du behera. Etxauribar Laneanek ibarreko abeltzaintzako azpiegiturak hobetzeko, larreak berreskuratze eta artzainen bizitza errazteko lan egin du. Egindako lanen artean, nabarmentzekoa da Nafarroako Gobernuaren eta La Caixa Gizarte Ekintzaren

inbertsioa erakartzeko egindakoa; Bidaurretako Udalaren laguntzarekin, Bidaurretako mendian itxiturak, ur-puntuak eta larreak jarri dira.

- Garapen lokaleko taldea: 2016ko martxoan, Iruñeko Lurrekin mahai-ingurua egin ondoren, inguruko ibarrak biltzen dituen lan-talde baten ibilbidea hasi zen (Etxauribar, Ollo ibarra, Goñi ibarra eta Oltza Zendea), eta hasiera Lau Haran izena hartu bazuen ere, ondoren, “Bihotzean - En el corazón” izenak aurrera egin zuen. Talde honek Anel eta Nafarroako Gobernuko Gizarte Berrikuntzako Unitatea bidelagun izan zituen. ANEL (Nafarroako Gizarte Ekonomiako Enpresen Elkarte) 200 enpresa bazkidek osatzen dute eta 14 langile ditu. Estatutuen aldaketa baten ondorioz, taldea gelditu egin zen eta pandemiaren ondoren ez da berriro hasi.
- Berdintasun-taldea: VOLAR dokumentalaren aurkezpena eta ondorengo solasaldiarekin hasi zen. Herrietako sarreretan eraso sextistak ez onartzeko kartelen proposamena egin zen ere bai. Ondotik sortuko ziren *Martxoak 8* eta *Gerezi Lilak* taldeak.
- Inauteriak: Inauterietako pertsonaia zaharrak berreskuratuz herri inauteria sortu zen: historia, pertsonaiak, dantzak, musika, ipuina... Urtero Gerexipot Etxauriko kaleetan zehar agertzen da; pozoiz kutsatzen gaitu, eta, harrapatu eta kalejiran barrena eramán ondoren, sutan erretzen dugu.
- Komunikazio taldea: komunikazio sarea sortu dugu, ibarreko 200 pertsona ingururi posta elektronikoa eta Facebook bidez iristen zaiona (+ 700 lagun). Ibarreko interesa duen orok jaso dezake, besteak beste, Etxauribar Lanean elkartearen bileren akta, hitzaldien, jardueren, proiektuen, auzolanen eta abarren gaineko informazioa. Blog hau ere eskura dago: etxauribar.blogspot.com.
- Tailerrak, hitzaldiak, txangoak. Adibidez: Herri kooperatibaren hitzaldia, Tokiko Moneta, Tokiko Garapena Cederna Gara Lurren eskutik, Lakabe tailer bideratzailea, Ekintzailatza-tailerra, Volar (genero-indarkeria) dokumentalaren proiektzioa, Sustainable Eating (elikadura-subiranotasuna), Juaregia Anizerako txangoa (kontsumo-taldea), Gerezia ekologikoari buruzko jardunaldiak...
- Kontsumo taldea: Etxauribar Kontsumo Taldea. Talde honen helburua, besteak beste, ibarreko pertsonen bertako produktuen, produktu ekologikoen eta/edo bidezko merkataritzakoen kontsumoa erraztea da. Gaur egun 45 familia unitateri ematen die zerbitzua, eta guztien artean talde lanean aurrera eramaten da. Hilean behin egiten dira banaketak. 8 urte daramatza lanean.
- Etxauribar-Itsasu senidetze-taldea. Loturak estutzen jarraitzen dugu. Etxauribar Laneanek, herritarren eta tokiko erakundeekin laguntzarekin, Itsasuko herriarekin harreman sozial, kultural eta ekonomikoa izateko dinamika garatu du. Bai gerezia, bai euskara, bai kultura eta baita historia ere, bi eremuen arteko hurbiltasun-elementuak dira, eta interes komun gehiago ere badituzte.

- Gereziaren feria
Orvalaiz kooperatiba lagun, bi aldiz antolatu da Etxauribarko gereziaren azoka. Azoka egiteko ideia gerezia izanik ere, haraneko nekazaritzako produktuak eta zerbitzuak erakutsi eta sustatu nahi dira. Ibarreko gerezia erakusleiho, zuzeneko salmentaren garrantzia azpimarratzeko, gure lanari balio erantsia emateko, eta daukagunari eutsi nahi badiogu belaunaldi-erreleboa bultzatzeko, eta baita, haranaren nekazaritza-izaera indartzeko ere.
- Klima-aldaketara egokitzeko taldea
Taldea sortu berria, ingurumen-krisiarekin zerikusia duten aldaketetara egokitzeari buruzko hausnarketa egingo duena.

Etxauribar Lanean jendearen kezka, ideiak eta era askotako proiektuak biltzen dituen gunea da; eta, horrenbestez, Pertsona guztiak parte hartzera gonbidatuta daude.

Sakonago ezagutzeko, parte hartu edo zure ekarpenak egin:

Email: etxauribarlanean@gmail.com

Blog: etxauribarlanean.blogspot.com

2023/05/11